

ESKOLA TXIKIEN ERAGINKORTASUN HANDIA

Gipuzkoako Eskola Txikien eguna izan zen Asteasu eta irudian ikusten denez, Berrobiko haur, gazte eta gurasoak herri eskola berria aldarrikatzeko bildu ziren. Hauek dira Eskola Txikien Elkartearen hitzak:

Gloria Castaños, Gipuzkoako Eskola Txikien Elkartearen koordinatzailea

Buru belarri dabil koordinakundeko beste kideekin batera, herri txikietako eskolen beharrak eta eskaerak bideratzen.

GALTZAUNDI. Zeintzuk dira eskola txikiek dituzten behar nagusiak?

GLORIA CASTAÑOS. Aipagarrienak bi izango lirakeke: garraioa eta jangela. Bi zerbitzu horiek edozein herri handi edo ertainetako ikastetxeek eskaintzen ditu. Herri txikietako eskolak zerbitzu horiek eskaintzean baldintza berezitan aritu behar dira. Eskaerak eta beharrak herri handietako ikastetxeek dituztenak dira, baina herri txikietako eskoletara eramatean horiek larriagoak bihurtzen dira.

G. Hala ere, eskola txiki bakoitzak dituen beharrak desberdinak izango dira.

G.C. Eskola bakoitza autonomia da, baina beti du koordinakundearen babesa harreman horiek aurrera eramaterakoan. Horrek indarra ematen dio eskaerari. Gainera jadanik hogeita bost gara elkartearen dauden ikastetxeak, eta edozeinek arazoren bat duenean jotzen du elkartera. Ohitura hori hartua dago.

G. "Eskola Txikiak Bizirik, Herri Txikiak Bizirik" da elkartearen leloa. Oraindik eskolarik ez duten herrietan, horiek sortzeko lanean diharduzue?

G.C. Guk ez dugu lan hori egiten. Nor-



Ekainaren 8an ospatu zen jaiaren hasieran, atean bertan Berrobiko jende bat jarri zen eskola txikia herrian ipintzeko eskatuz.

malean herri horietako biztanleek behar hori ikusi eta laguntza bila jotzen dute guregan. Gehienek gure funtzionamendua ezagutu, eta gure esperientzia kontuan hartuta, proiektua bideragarria den galdetzen digute. Gaur egun prozesu horretan dago Ezkio-Itsaso esaterako. Hala ere beharra ikusteaz gain, ondoren erakunde publikoen -Udala eta Eusko Jaurlaritza- baimena izan behar da.

G. Herri txikientzat garrantzitsua izango da ikastetxe bat izatea.

G.C. Herri txiki batentzat oso garrantzitsua da ikastetxea izatea. Izan ere, argi dago etorkizuna gazteengan dagoela. Haurrik ez duen herri bat kondentatua dago. Naturak agintzen duen zerbaite da. Gainera kanpoko jendea ez litzaiteke bertara bizitzera etorriko.

G. Zein baldintza bete behar dira eskola txiki bat izateko?

G.C. Zazpi gela edo gutxiago osatutako eskola izan behar du, eta gainera maila bat baino gehiago gela berean egotea. Horrela sarritan gertatzen da muga horiek gainditzea eta eskola txi-

kia ez izatea, urte batetik bestera aldatu egiten baita haur kopurua.

G. Adin desberdinetako haurrak gela berean egoteak zein eragin du heziketan?

G.C. Haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzaren hasieran oso garrantzitsua da, umea bere herrian ikasten gelditzea. Izan ere bere lagunak, eta bere ingurunea hor daude. Bigarren hezkuntzan behar bada ez da horren garrantzitsua.

ESKOLA TXIKIAK ESKUALDEAN

Albizturgo Herri Eskola
Alkizako Herri Eskola
Altzoko Imaz Bertsolaria Herri Eskola
Berastegiko J.A. Muñagorri Ikastetxea
Berrobiko San Andres Herri Eskola
Bidegoiango Txinkorta Herri Eskola
Errezilgo San Martin Herri Eskola
Ikaztegiako Herri Eskola
Lizartzako Juan XXIII Herri Eskola

Joni Ubeda **G**

LAN ESKAINTZA

Haurtzaindegia eta zentru publikoetarako deialdiak laster

Haurtzaindegietarako langilegoa

Baldintza: Haurtzaindegiko L.H. 2

INFORMA ZAITEZ

943 444 509

J. San Sebastian MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

OSKI

Nafarroa etorbidea, 11-Tolosa-943 651 264

OSKI GAZTEAK

Emeterio Arrese, 5-Tolosa-943 655 621